



Paul Urkijoren *Irati* filma. DAVID HERRANZ / FILMAX

Izana duenik bada

Andoni Imaz

Irati filmak harrera beroa izan du, eta, egia esanda, solemnea ere bai. Filma bera ere horrelakoxea da, serioa, irribarre eta brometarako tarterik gabekoa ia –eskerrak haurrei eta animaliei–. Istorio epiko totala. Hala ere, handitasun horretan, tentsio bat nabari da irudi bakoitzean, egilea pultsua egiten ariko balitz bezala filma denaren eta izan zitekeenaren artean. Horrek ez du zertanetsia adierazi: tentsioak berarekin dakar ezinezko proiektu bat arrakasta komertzial bihurtu ahal izateko erakutsitako adorea.

Paul Urkijok asmatu egin du: asmatu du proiektu pertsonal bat, ekoizpen handi bat eta ikusle asko lotzeko gai den istorio bat bateratzen. Eta asmatu du hori

KRITIKA Zinema 'Irati' ●●●●●

Zuzendaria: Paul Urkijo. **Aktoreak:** Edurne Azkarate, Eneko Sagardoi, Iñaz Iturza, Nagore Aranburu, Kepa Errasti. **Herrialdea:** Euskal Herria. **Iraupena:** 114 minutu.

asmatzen: ausarta izan da mitologia eta historia nahastean, eta neurri berean jokatu du ikuskitzaren eta errespetuaren alde; gaur-gaurko gai ere keinu batzuk egin dizkie, gainera –«giza lukurreriak oinpean darabil oiñana», dio Marik–. Zuzendari gutxi irudikatu dituzte Erdi Aroko lehen mende urrun haiek, are gutxiagok Mendebaldean.

Bitasunez jositako istorio bat kontatu du filmean, bi munduren arteko igurtzi etengabea da bilena, argi-itzalen bidez. Lanbroak hartutako baso itxi horretan sortzen da magiarik bereziak, eta irudi ederrak uzten ditu, efektu bisual sotilen bidez. Kontrara, beste pasarte batzuetan, efektu digitalek pixka bat kamusten dute giro hori.

Tentsio haren eragina sumatzen da, ordea, irudien planifikazioan, eskema mugatu baten mende baitago, tarteka kontaktuzuna zamateraino. Kontzeptu bisual ikusgarriek ez dute elkarrengana modu eraginkorren lotuko dituen muntatzerik, ezta maila bereko ideiarik ere gidoian, eta sekuentzien katigatzeak apaldu egiten du emozioen garapena.

Interesgarriak dira Irati protagonistaren barruko minak, eta nabarmentzekoak Edurne Azkarateren lan fisiko eta naturala, Eneko Sagardoirekin osatzen duen bikote ona –mitoaren inguruko maitasuna modu zalantzagarrian gorpuzten den arren–, Kepa Errastiren bilau begirada sarkorra eta Iñigo Aranbarren intentsitate neurtua. Egia esan, nekez irudika daiteke filmerako aktore talde hobek. Taldea bezain aproposa da, gainera, hizkuntza girotzeko erabili duten doinuak eta elkarrizketen lirikotasuna.

Filmaren estiloak konparazio potoloetara jotzeko gogoak piztu dezake, baina *Irati*-k ez du horren beharrik: aldiro asmatu behar izan du bere burua, baita bere neurria ere, eta lortu du izaera bixi horri forma propio bat emate. Tentsioak beste bizi bat dauka eskuz eginda dagoenean.



Piztu argiak! ekitaldia, atzo, Durangoko Plateruenan. ENDIKA PORTILLO/FOKU

'Piztu argiak!' ekitaldiarekin eman diote hasiera Plateruenaren ibilbide berriari

KULTURGUNEAK • Bi urte eta erdiko etenaren ostean, atzo iluntzean irerki zituen atea Durangoko Plateruenak. *Piztu argiak!* izeneko ekitaldi batekin abiatu zuten antzokiaren ibilbide berria. Leire Vargas idazleak gidatu zuen emanaldia, eta, hainbat artista izan zirentan, besteak beste, Anari eta Odei Barroso abeslariak eta Aitor Bizkarra bertsolaria.

Abuztu amaieran egingo da Dantz musika elektronikoa eta garaikidearen jaialdia

MUSIKA • Dantzek iragarri du noiz egingo den musika elektronikoa eta garaikidearen nazioarteko jaialdiaren zarpigarren aldia: abuztuaren 24tik 26ra izango da, Donostian. Antolatzaileek esan dutenez, iaizko arrakastaren ondotik, «berrikuntza zirrargarriak» izango dira aurturten, baina aurrerago emango dituzte xehetasun gehiago.

Gioconda Belli poetaren errezitalak zabalduko du Bilbaopoesia literatur jaialdia

LITERATURA • Martxoaren 14tik 23ra egingo da Bilbaopoesia jaialdia 24. aldia, Bilboko Bidebarrieta kulturgunean. Gioconda Belliren errezitalarekin hasiko dute jaialdia, eta beste hainbat artista ere izango dira; besteak beste, Aurora Luque, Felipe Benitez Reyes, Rosa Berbel, Beatriz Txibite eta Yolanda Castaño.

aukeran
hamaika

hamaika
musika
zuzenean

[LTD, Euskaltel]

@11amalkatb

@Hamaika1b

@Hamaika1b

@Hamaika1B

@Hamaika1B